Mailegu kolektiboa: jarraibideak

Zerbitzu hau beren jarduerak garatzeko mailegu kolektiboa behar duten erakundeentzat da.

Erakunde bakoitzak gehienez eta aldi berean, Nafarroako liburutegi publiko guztien 50 dokumentu izan ditzake maileguan.

Dokumentu-mota guztien araubide orokor gisa ezarritako mailegu-politika honela aplikatuko da, baldin eta eskabideek liburutegiaren jarduera oztopatzen ez badute:

- 50 liburu 30 egunez -behin berritu ahal izango direnak itzultzeko data bete baino lehen, eta beste erabiltzaile batek erreserbatu ez baditu-.
- 10 CD-ROM, DVD edo CD, durante 15 egunez.
- Liburutegiak bere baldintzen arabera baloratuko du, hala eskatuz gero, aldizkarien eta bestelako materialen mailegua.

Mailegu kolektiborako eskubidea duena jarduera bat antolatu nahi duen elkargo, erakunde edo kolektiboa da, eta ez taldeko norbanakoa. Horiek mailegu pertsonala erabili beharko dute.

Erakundeak mailegu kolektiboaren eskaera bete behar du, maileguaren xede den jardueraren arduradunak sinatuta.

Erabiltzaile kolektiboak iraungitzeko aukera dago, bai eskabidean esleitutako jardueraren amaiera-datarekin, bai ikasturteko amaiera-datarekin (ikastetxeen kasuan), irakurle kolektiboaren fitxaren arduradunak eguneratzeko.

Kasu berezietan, eskaera eginez gero, mailegu kolektiboaren epea luzatu ahal izango da.